

## **SAN MARTIN, 9 ETA 11KO BABES OFIZIALEKO 5 ETXEBIZITZEN ZOKKETA ETA ESLEIPENA EGITEKO ARAUDIA**

Zozketa fede-emaille publikoaren aurrean egingo da.  
Irekia izango da, edozein pertsona bertaratu ahal izango da hura ikustera.  
Zozketa Udaletxean izango da, **Osoko Bilkurako gelan (3. solairua)** izango da,  
**2025ko martxoaren 12an, goizeko 10:00etan.**

Zozketa bateratua egingo da etxebizitza guztietarako.

### **ESLEITZEKO PROZEDURA**

1. Prozeduran onartutako eskari kopurua etxebizitzaren baino handiago denean, esleipena fede-emaille publikoaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da.

Esleipena egiteko orduan etxebizitzak bizikidetzaren unitatearen beharretara egokitzen direla hartuko da kontuan.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 LEGEAREN 62.2 artikuluan gain-okupazioari buruz jasotakoa kontuan hartuko da:

*a) Etxebizitza batean pertsona 1 bizi bada, etxebizitzak 25 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.*

*b) Etxebizitza batean 2 pertsona bizi badira, hark 33 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.*

*c) Etxebizitza batean 3 pertsona edo gehiago bizi badira, hark 15 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du, gutxienez, pertsonako.  
Honetarako ez dira kontuan hartuko terrazen, balkoien eta esekitokiaren azalerak.*

Era berean 27. Artikuluan AGINDUAK esaten du (2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa) etxebizitza egokia zer den. Etxebizitza hauek banatzerakoan kontuan izango da irizpide hau.

*a) Logela bat gehienez bi kiderentzat.*

- b) Bi logela gehienez lau kiderentzat, bikotea osatzen ez duten bi pertsona edo mediku espezialistaren aginduz bere logela eduki behar duen pertsona bat bizikidetza-unitateko kide badira izan ezik.*
- c) Hiru logela gehienez sei kiderentzat.*
- d) Lau logela edo gehiago zazpi kideetik aurrera.*

2. Prozeduran sartutako pertsona edo bizikidetza-unitate bakoitzari parte hartzeko zenbaki bat emango zaio zozketa egin aurretik. Zozketan parte hartzeko zenbakiak ausaz emango dira; hala, 1 zenbakitik hasi eta korrelatiboki jarraituko da harik eta prozeduran sartutako eskaera guztiei eman arte. Prozeduran sartutako pertsonen edo bizikidetza-unitateen dagozkien zenbakien berri emango zaie, gutxienez zozketa egin baino astebete lehenago.
3. Zozketa egitean, lehenik eta behin, eskaera-zenbaki bat ausaz hautatuko da, eta horretatik hasiko dira etxebizitzak esleitzen, banan-banan sustapena amaitu arte. Etxebizitza guztiak esleituta gero, atzetik datozen eskariak ordezkoen zerrenda osatuko dute, aurrekoek uko egin behar badute.
4. Etxebizitzak esleitzeko sasoian, esleipen oinarrietan xedatutako hurrenkerari jarraituko da.

## ESLEIPENA EGITEKO ORDENA

1. 9. ATARIA 3.C
2. 9. ATARIA 2.B
3. 11 ATARIA 3.C
4. 11 ATARIA 3.B
5. 11 ATARIA 2.C

Beti hartu beharko da kontuan etxebizitza bizikidetza-taldearen tamainara eta premietara egokitzen dela, aurretik aipatutako araudiaren arabera.